



AGINDUA, 2022KO AZAROAREN 23KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZ ONARTZEN BAITA BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN ESTADISTIKA-ORGANO BEREZIA SORTZEN DUEN ETA HORREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA EZARTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezartzen da xedapen orokorrak egiteko bete beharreko prozedura.

Aipatu legearen 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak 2022ko azaroaren 18ko hasiera-agindua eman zuen, zehazki, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen maiatzaren 18ko 139/2021 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastekoa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, proiektuaren testua ele bitan idatzi da, eta agindu honi erantsi zaio.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, honako hau

ORDEN DE 23 DE NOVIEMBRE DE 2022, DE LA CONSEJERA DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES, DE APROBACIÓN PREVIA DEL PROYECTO DE DECRETO DE MODIFICACIÓN DEL DECRETO POR EL QUE SE CREA EL ÓRGANO ESTADÍSTICO ESPECÍFICO DEL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES Y SE ESTABLECE SU ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General determina el procedimiento que se deberá observar para la elaboración de las disposiciones de carácter general.

De conformidad con lo establecido en los artículos 12 y 13 de la mencionada norma, en fecha 18 de noviembre de 2022 se dictó Orden de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, por la que se dio inicio al procedimiento de elaboración del proyecto de decreto de modificación del Decreto 139/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano estadístico específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento.

Atendiendo a lo dispuesto en los artículos 14 y 15 de la precitada Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, se ha procedido a la redacción del texto del proyecto en forma bilingüe, que se adjunta a la presente orden.

En virtud de lo anteriormente expuesto,



**RESUELVO:****EBAZTEN DUT:**

Lehena. Aurretiaz onartzea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

Bigarrena. Aipatutako araua egiteko prozedurarekin jarraitzea, eta behar diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko azaroaren 18ko Aginduan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastekoan, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera.

Primero. Aprobar con carácter previo el proyecto de decreto de modificación del Decreto por el que se crea el Órgano estadístico específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento.

Segundo. Disponer la continuación del procedimiento de elaboración de la citada norma, ordenando la realización de los actos de instrucción necesarios, de conformidad con lo establecido en la Orden de 18 de noviembre de 2022, de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, por la que se acuerda el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de decreto de modificación del Decreto por el que se crea el Órgano Estadístico específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ



XX/2022 DEKRETUA, XXXXXXAREN XX(E)KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN ESTADISTIKA-ORGANO BEREZIA SORTZEKOA, ETA HORREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA EZARTZEKOA.

4/1986 Legeak, apirilaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoak, 26. artikuluan ezartzen du autonomia-erkidegoko estatistika-jarduketa, besteak beste, estatistika-organo berezi bat barne hartzen duten Jaurlaritzako sailek gauzatuko dutela.

Bestalde, 180/1993 Dekretuak, ekainaren 22koak, Jaurlaritzako sailen estatistika-organo bereziak arautzekoak, sailen estatistika-organo bereziak arautzen ditu, antolamendu-arau orokorren printzipioak uztartuta estatistika-legeriatik eratorritako eskakizunekin, batik bat, estatistika-sekretuaren gainekoekin.

Aurrekoarekin bat etorritz, 139/2021 Dekretua, maiatzaren 18koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Berariazko Estatistika Organoa sortzen eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen, onartu zen. Organo horren jardun-arloak, 3.2 artikulua araberak, honako hauek dira: a) Berdintasuna; b) Gazteria; c) Zahartzea eta erronka demografikoa; d) Gizarte-zerbitzuak barnean hartuta gizarte-bazterketa eta pobrezia modu guztien azterketa eta jarraipena, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoena ere; e) Familia, haurtzarora, garapen komunitarioa eta boluntarioria; f) Migrazioa; g) Giza eskubideak, biktimak eta memoria; h) Garapenerako lankidetzak; eta i) Justizia.

18/2022 Dekretua, irailaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzen duena, onartuta, Lehendakariaren eskumen-esparruan sartu zen Gazteria-arloa, aipatu aldaketa indarrean jarri arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen-esparruaren barne zegoena.

Horrenbestez, egokia da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia arautzen duen araua aldatzea, Gazteria-arloa bere jardun-eremuetatik kanpo uzteko eta, horrela, sail horren eskumen-esparrura egokitzeko. Hala, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen maiatzaren 18ko 139/2021 Dekretuaren 3. artikuluko 2. apartatuko b) letra eta lehen xedapen gehigarria kendu behar dira (estatistikei egiten die erreferentzia: a) EAEko gazteak, eta b) Gazteriaren Ikuspegia).

Beraz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Euskal Estatistika Batzordeari kontsulta egin ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko xxxxxxaren xx(e)(a)n egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. - Berridatzi egin da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen maiatzaren 18ko 139/2021 Dekretuaren 3. artikuluko 2. apartatua, eta honela geratu da idatzita:



«2.- Aurreko apartatuan adierazitakoari dagokionez, hauek dira Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Berariazko Estatistika Organoaren jardun-arloak:

- a) Berdintasuna.
- b) Zahartze aktiboa eta erronka demografikoa.
- c) Gizarte-zerbitzuak, barnean hartuta gizarte-bazterketa eta pobrezia modu guztien azterketa eta jarraipena, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoena ere.
- d) Familia, haurtzaroa, garapen komunitarioa eta boluntariotza.
- e) Migrazioa.
- f) Giza eskubideak, biktimak eta memoria.
- g) Garapenerako lankidetzak.
- h) Justizia».

Bigarren artikulua. - Kendu egiten da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen maiatzaren 18ko 139/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarria.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.



DECRETO XX/2022, DE XX DE XXXXXXXX, DE MODIFICACIÓN DEL DECRETO POR EL QUE SE CREA EL ÓRGANO ESTADÍSTICO ESPECÍFICO DEL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES Y SE ESTABLECE SU ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, prevé en su artículo 26, que la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma, se lleve a cabo por, entre otros, aquellos departamentos del Gobierno que tuvieran constituido en su seno un Órgano Estadístico Específico.

Por su parte, el Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos específicos de los Departamentos del Gobierno se erige en la disposición reglamentaria que regula los órganos estadísticos específicos de los departamentos, conjugando los principios propios de la normativa organizativa general con los requerimientos derivados de la legislación estadística y, en especial, del secreto estadístico.

De conformidad con lo anterior, se aprueba el Decreto 139/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento, cuyas áreas de actuación, según dispone su artículo 3.2, son las siguientes: a) Igualdad; b) Juventud; c) Envejecimiento y reto demográfico; d) Servicios sociales, incluido el análisis y seguimiento de las distintas formas de exclusión social y pobreza, así como de las prestaciones económicas, del Sistema Vasco de Servicios Sociales; e) Familia, Infancia, desarrollo comunitario y voluntariado; f) migración; g) Derechos humanos, víctimas y memoria; h) Cooperación para el desarrollo; i) Justicia.

Mediante el Decreto 18/2022, de 23 de septiembre, del Lehendakari, de segunda modificación del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se incorpora al área competencial de Lehendakaritza el área de actuación de Juventud, que hasta la entrada en vigor de dicha modificación formaba parte del área competencial del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

Procede, en consecuencia, modificar la norma reguladora del Órgano Estadístico Específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, para excluir el área de Juventud de entre sus áreas de actuación, y adecuarla así a las áreas competenciales de este Departamento, suprimiendo tanto la letra b) del apartado 2 del artículo 3 del Decreto 139/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento, como la disposición adicional primera, que hace referencia a las estadísticas: a) Juventud Vasca, y b) Panorama de Juventud.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, previa consulta a la Euskal Estatistika Batzordea/Comisión Vasca de Estadística, y tras la deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día XX de XXX de 2022,

DISPONGO

Artículo Primero. - Se da una nueva redacción al apartado 2 del artículo 3 del Decreto. 139/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del



Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento, que quedará redactado como sigue:

“2.- En el marco de lo señalado en el apartado anterior, son áreas de actuación del Órgano Estadístico Específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales las referidas a:

- a) Igualdad
- b) Envejecimiento activo y reto demográfico.
- c) Servicios sociales, incluido el análisis y seguimiento de las distintas formas de exclusión social y pobreza, así como de las prestaciones económicas del Sistema Vasco de servicios Sociales.
- d) Familia, infancia, desarrollo comunitario y voluntariado.
- e) Migración.
- f) Derechos humanos, víctimas y memoria.
- g) Cooperación para el desarrollo.
- h) Justicia.”

Artículo Segundo. - Se suprime la disposición adicional primera del Decreto 139/2021, de 18 de mayo, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y se establece su organización y funcionamiento.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.